Euskal idazleen elkartea (III)

Ulertu nahi duenak ulertu dezan, behin eta berriz errepikatuko dut gizarte zibilizatu batean, literatur ekintzak bultzatzen ez dituen herriaren hizkuntzak ez duela etorkizunik.

Euskaldunok, abertzale izenez hartu ditugu gure erakundeak zuzpertzeko ahalmenak, euskararentzat ere esperantzazko bideak idekiz. Baina, zenbaitek maiz zalatu duten literaturgintzaren krisia, edo krisi itxurakoa, aztertzen edo soluzio bideak aurkitzen apenaz ezer egin da. Batzuen ustez, telebistak egingo du euskaltzaleak opa duten milagroa. Gehienen ustez, itzulpenen bidezko kultura prestatuak edo prestamoskoak berpiztuko omen ditu euskarak dituen ajeak. Baina, nere ustez, lehen zordun bagara, jokabide horrek zordunago egingo gaitu. Sorketazko literaturaren garrantziaz ohartzen ez denaren amets usteletan bizi garela dirudi.

Borondate onik inori ez zaio ukatzen, baina borondate ona ez da aski. Euskararentzat hain beharrezkoak ziren irakaskintza bidetik urrats ederrik eman da, Hezkuntza sailaren jokabide txalogarriari esker. Kritika hauskorrik izan badute ere, gauzak taxuz egin dituztela esango nuke. Unibertsitate mailan, filologiazko aurrerapenak nabarmen ageri zaizkigu. Baina, literatur ikerketak, aburu eta azterketak, hor daude geldi. Historia orokorra emango da, azal azaletik bederen, baina kritika zentzua geroari begira dago. Ez dago zalantzarik, hori ere helduko dela.

Ikastolen mugimendu aurreko euskaldunok ez gara gure hizkuntzan eskolatuak. Euskararentzako maitasun bidez gogoa piztu zitzaionak bera kaxa zerbait egin bazuen ere, urri dira edo urri gara euskaldunon kopuruan. Alfabetatze kanpainetatik zerbait gehiago espero genuen, eta Euskalduntzekoei oraindik zerbait gehiago metodologia berrien aldetik. Bi talderen artean eztabaidarik aski ezagutu dugu, baina efikaziaren neurketa hala-holakoa. Taldekeriak kalte handiak ekarri ditu, eta oraintsu ***Argia*** *(1982-IX-12. 944. zenb.) aldizkariaren 24-25. orrialdeetan Joxe M. Odriozolak dionarekin nago. Euskara estrateji politikoetara eramanaz ibiltzeak izurratu besterik ez du egiten.*

Horregatik, HABE da bidea, biderik izatekotan. Hor ez daudenak non dauden, Odriozolaren lanetik atera kontuak. Kritika beharrezko dugu eta hortan ari naiz; baina, Euskadiko boterearekin joan behar gara danok batean, gauzak hobeto egiten lagunduz. Aspaldi esan zuen gure herritar batek: "mundu hontako gauzarik txarrena, ez daukanaren borondatea".

Baina, irakurtzen dakienaren helburu, irakurgaiak. Literatura, beraz.

Hemen ere bada Axurraren esaldi hura errepikatu beharra: etzuela deusek ere hanbat kalte egiten arimako eta gorputzeko ere, nola egitekoen geroko uzteak, egunetik egunera, biharretik biharrera lozatzeak". Eta, literatur kontuetan gauzak atzekoz aurrera egiten ari garen susmoa daukat. Non-nahi eta maiz entzuten dudana da, gaur egun inoiz baino liburu gehiago argitaratzen dela euskaraz. Liburuen kopurua balitz kreaziozko literaturgintzaren ageritzat, biba gu! Liburu asko ta apainik agertzen da, baina irakaskuntzarako hain beharrezko diren testuetatik aparte, ezer guti baliozkorik. Hala ere, hor ari gare mundu zabalera begira, harrokerietan eroriz, inondiren entziklopediak, hiztegiak eta abar, apain eta mardul agertzen, tontoen engaiñagarri. Zeren, gure literaturgintzatik begiraturik, ez baita gordetzen holako erlaziorik. Itxureri begira, gauzak atzekoz aurrera eginaz, oilaskoa pabo-errealaren lumaz jantzita eskaini. Negarrezko haran hau farregarri egitearren ote?

Dena dela, itxurazko gauzetan diru ederrik eralgi da. Baina idazleen premiak, hizkuntza tipiaren zamaz kargaturik bizi diren idazle sortzaileak inork ezer entzungabe, haintzakotzat er hartu gabe zokoraturik.

Egoera hortaz irautzerik ez da. Eta idazlean elkartasunerako hor sortu da elkarte bat. Entzun beharko zaio. Zeren burokraten plangintza hotzetatik baino egokiago bideratuko bai da: zer, nola eta nondik bideratu herri baten ondasunerako izango den literaturgintza.

Gure artean, batzuk, kimu berriak eta hobeak sortuko dituen giroa prestatu gabe, bat batean nahi dute goren mailako idazleak lortzea. Orduan laguntzak erraz lortuko diren ustean. Baina, hortaz, guretzat ahaztu ezinezko olerkaria zen Lizardiren hitzak gogoraziko ditut: "Olerkari onik eztegula?... Zirika ditzazute diranak, eskein zaiezute aintza-apurño bat... eta gero mintza! Ta ori maiz egiñaz, ikusi baietz leengoak beren buruak yantziagotzen, ta berri lirañak sortzen; ta, azkenik, kemen illezkorrez bazkako duan gizagurena euskera gaixoari agertu baietz..." Lan berean galdetzen zuen: "Txikion giro-berotzea gabe, sortzerik bai al-luteke aundiak?"

*Idazleen elkarteak badu zereginik gauzak zuzenizten eta bi-kortzen: eleberri, ipui, antzerki, saiaera, eta abar, gaur egun herri batek behar beharrezkoak ditu zinema, irratia, telebista eta abar, bere kultur giroan inguratuko baditu. Sorketa horiek indartuko bai dute gure hizkuntzaren nortasuna. Lizardi berak era hontara agertu zigun nortasuna: "Euskerak eman digu ere izena. Euskera da gure bereiz-alderik (****hecho diferencial****-ik) ... bariena. Euskerak etxekotu gaitzake oraindik ... euskera-gabetzeak arroztu".*

Juan SAN MARTIN

Si contemplamos la realidad del vascuence, hemos de reconocer que se han logrado importantes avances hacia la normalización de uso del euskara en diversos campos de la administración, en la enseñanza, euskaldunización de adultos, radio, etc. Pero uno de los problemas más acuciadores viene a ser la creación literaria, a la que apenas se ha prestado ningún cuidado por los organismos autónomos. No se ha estudiado, y por consiguiente no se ha podido planificar el apoyo al autor, pieza clave de la creación literaria, cuando resulta ser tan necesario en una lengua de ámbito restringido. En Europa hay muchas lenguas con problemáticas similares al vascuence y a muchas de ellas se ha logrado darles una viabilidad idónea, principalmente en las escandinavas y países socialistas, y que podían servirnos de modelo. Si por desgracia contamos con pocos escritores que alcancen un nivel aceptable como creadores, en contrapartida serán bajos los desembolsos económicos para la requerida y tan necesaria ayuda al autor. Que, a fin de cuentas, la obra creativa viene a engrosar y enriquecer el patrimonio cultural de un pueblo.

Como no se ha escuchado al literato creador, una de las tareas de la Asociación de Escritores en vascuence (Euskal Idazleen Elkartea), además de la defensa de los intereses morales y materiales del escritor, tendrá que ser la de la planificación de las necesidades para un desarrollo de la literatura creativa, para exponer dichos planes a los organismos competentes y solicitar de los mismos las necesarias ayudas.

Txirotasuna Araban, iragan mende bukaeran

1899.ko Abuztuaren 8.an Gasteizen eratutako "Lore Jokoak"-etako epaimahaiak bere erabakia jakinerazten zuen, sariketaren sailetako irabazleen izenak ezagutaraziz. Lore Jokoen antolatzailea hiriko Ateneoa zen eta sariketara azaldutako lanik onenetaz osaturik, liburu bat kaleratu zen handik gutxira, irakurleen atseginerako.

Liburuaren ale bat eskuetaratu berri zait eta bere horrialdeetatik barrena nabilela gai batek biziki-erakarri nau. "Txirotasuna Araban' Hiriburu alderako inmigrapena. Honi aurre egiteko bitarteak" zuen titulua gai horrek eta sei lan agertu zen lehiaketara. Opusculum meum hoc est" ezaugarripean Perfekto Zulueta jaunak idatzitakoa izan zen irabazlea. Sail honetako epai mahaia honako jaun hauek osatzen zuten: Ramón Apraiz, Cola eta Zabala.

Hurrengoko lerroetan Zuluetaren lanak darakusen mezua hurbildu nahi diot irakurleari, garaiko pentsamoldeak nondik nora jotzen zuen ulertzeko bide egokia dela pentsatzen dudalarik. Aurreko artikulu batetan nioen bezala, liburuak Herriaren historia jaso eta denboran projektatzen digu. Eta hori berbera gertatzen zaio oraintxe esku artean darabildan liburuari. Goazen, bada.

Hasteko, esan dezadan Zulueta jauna ez dela abertzaletasun itsu —ezta arina ere— baten jabe. Zergaitik diodan hau? Begira, Arabako txirotasunaren gehitzea, hein garai batetan, ***Euskal Foruen deuseztapenak*** *ekarri duela baieztatzen du lanaren egileak, eta Madrilgo gobernuarentzat benetako hitz gogorrak ditu. Probintziako bizimoduan Foruak adierazten zuen ziurtasuna apurtu egin zen, Zuluetaren eritziz, Gobernu zentralaren eraginez eta herrialdeko biztanleen lehengo ohiturak, lan-sistemak, e.a. aldatu edota baztertu behar izan zituzten. Ordain gisa, dio Zuluetak,* ***"...nen zenbakia haunditu egin da"****. Eta jarraitzen du,* ***"Euskal probintziek heuren Foru Erakundeak euki zituzten bitartean ohitura ekonomiko hestuak bete egiten ziren, haien onerako. Baina 1.876.ko Uztailaren 21.etik ohitura haiek hiltzen ari direlarik Gaztelako bizioek kutsatu dute Euskal Herria eta txirotasuna goruntza doa".***

Baina gorago esan dudan bezala, ez da pentsatu behar Zulueta jauna abertzaletasunak itsuturik zegoenik "euskaldunak; egiazko espainiarrak dira" irazkintzen baitu beste zati batetan.

Beraz, Lore Joko haietako irabazlearen ustez Arabako txirotasuna, gehien batez, Foruen desagerpena gehitzen ari zen, herrialdeko berezko ohiturak galzorian aurkitzen baitziren. Bestalde, eta bigarren zio bezala, ezjakintasuna zen. Arabako biztanleek, guztiek, ba zekitela idazten eta irakurtzen dio Zuluetak, probintziak emandako lehen kintako soldadu denak alfabetatuak zeudenaren eredua ipintzen duelarik. Handik hogetabost urtera gazteen heziketa txarragoa ei da, kanpoko etorkinen jarioa dela eta.

Baina zernolakoa zen garaiko inmigrapena? Arabak zuen inmigrapena guztia Gasteizek hartzen zuela esango bagenu ez ginateke errealitatetik urrun ibiliko. Mende bukaerako datuak dira datozenak eta Gasteizi dagozkio, Zulueta jaunak ematen dituen bezala: Gazteizko populazioa hirikoak eta berrogei eta lau herrixketakoak osatzen zuten. 1.884.an hirian 18.965 lagun bizi zen eta herrixketan 4.274; 1.887.an 24.524 eta 4.137; 1.893.an 25.899 eta 4.062. Lanaren egileak suposatzen duenez, Gasteizko zazpi mila biztanle gehiago hoietako gehienak kanpotik etorritakoak dira, Errioxa eta Gaztelatik, batez ere.

Populazioaren gehitze honek txiro-... hau egiteko Zulueta kaleetan ikus zitezkeen eskaleen kopuruan oinharritzen zelarik. Edozein herritako inmigrapenaren arrazoi orokorrei

— Euskal Herriko kasuan bizimoduaren maila garaia, batez ere — egileak beste hauek eransten zizkien: a) Gasteizko etxebizitzen gela-alogera oso merkea zelako. b) Etxe eta gela hoien azpierrentapena. d) Eskale eta txiroentzat Gasteizen hainbat eta hainbat aterpe eta etxe aproposa izatea: Ospitala, hospizioa, lekaime etxeak...Azken puntu honi dagokionez, Zuluetaren ustez, Gasteiz luxuzko hospizio haundi eta dotore bat zen eta, noski hospizioetan txirotasunaren ordezkariek bizi behar dute.

Lanaren hirugarren zatia txirotasunaren kontra nola borroka daitekeenari zegokiona zen eta eritzi hauek azaldu zituen Zulueta jaunak: Foruen desagerpenak ekarri badu txirotasunaren gehitzea, zergaitik ez haien erreibindikapena egin? Baina ez bide zaio irtenbide hau egokia iruditzen, ***"aurrez aurre Nazio osoa eukiko baitkenuke"*** *argumentatzen duelarik.*

Ez jakintasunaren aurkako neurri bezala etorkin guztien beharrezko alfabetatzea eta heziketa ipintzen du, etorkina behin haziz gero gizartean kide baikorra izan baitaiteke, horri bere lan eta esfortzua eskaintzen dizkiolarik.

Estrategia orokor hauei praktikara ahalik eta lasterren eraman beharreko beste hauek eransten dizkie Zuluetak: a) Eskaletasuna debekatzea. b) Udalak emanda eskaleek aritu ahal izateko daukaten baimenak kentzea. d) Kaleetan eskean dabiltzan haurrak ikastetxe berezietara bildu eta hoien gurasoei dagokien zigorra ipintzea. e) Osasunerako-medikuaren lanpostua Udalak sortzea, hiriko etxebizitzetako osasun-egoera nolakoa den froga ... f) Txiro eta behartsuei laguntzeko sortuak diren Etxe eta Erakundeen ekintzak kontrolatu eta bideratzea. g) Partikularrek ez diezaiotela edozeini limosnarik eman, eta eman nahi izanez gero aurreko puntuan aipatutako Erakundeen bitartez egin dezatela. Gasteizko etxebizitzen jabeek, heuren Elkartearen bidez, kontrola dezatela etxetiar eta maizterren egoera, eta heuren etxeak ez dituztela hospizio haundi bateko dohaneko gelak izan behar kontura daitezela.

Erositako prezioan saldua.

Jose Mari VELEZ DE MENDIZABAL

El problema de la pobreza-mendicidad, conocido en la época por el neologismo de procedencia inglesa pauperismo, debía de preocupar en extremo al Ayuntamiento vitoriano de finales de siglo pasado, motivo por el que, aprovechando los Juegos Florales de Agosto de 1.899, instituyó la entidad municipal un premio para el mejor trabajo literario presentado sobre el tema "El pauperismo en Alava. Inmigración a la capital. Medios de combatirle". El ganador fue D. Perfecto Zulueta, quien en un breve análisis exponía su teoría particular, que trataré de resumir en estas pocas líneas.

Era opinión del Sr. Zulueta que al ser despojado el País Vasco en Julio de 1.876 de sus Fueros, había sido impuesto un espíritu contrario a las costumbres tradicionales, que hacía que Alava se viera atropellada en sus derechos, cargando al humilde labrador de contribuciones hasta entonces por él desconocidas. Este hecho desequilibraba el presupuesto de muchas familias que se veían obligadas —en una u otra forma— a practicar la mendicidad.

Como punto que sigue en importancia al anterior entre los motivos ... del aumento de la mendicidad ... taba Zulueta el de la ignorancia ... "enfermedad contagiosa" que ... atacando a la sociedad alavesa ... la primera quinta de soldados ... provincia no existían analfabetos ... y que, según el autor del trabajo premiado, era transmitida por el elemento inmigrante.

Achacaba, asimismo, el crecimiento de la mendicidad al hecho constatado del bajo precio a que eran alquiladas las habitaciones ... casas particulares, motivo que ... atraía al vago y pedigüeño ... nal que encontraba cobijo ... de... dos pesetas mes. A la gran cantidad de instituciones vitorianas dedicadas a socorrer y amparar al necesitado, que habían convertido la ciudad en "un vasto, extenso, elegante y hasta lujoso hospicio".

Para combatir contra este mal epidémico, D. perfecto Zulueta recomendaba las siguientes medidas ... desconozco se pusieran en práctica ... prohibir en absoluto la mendicidad ... incluso recogiendo las licencias ... extendidas para ejercitar la profesión. Ordenar a los dependientes municipales la vigilancia ... calles, deteniendo a los niños que vaguen por ellas y conduciéndolos a centros docentes, aplicando a ... "desnaturalizados" padres el ... pondiente correctivo. Crear la ... municipal de médico higienista ... vigile el aspecto sanitario de los ... gares. Solicitar de las Sociedades ... Socorro, etc. un mayor estudio ... situación de cada familia ... cante. Rogar a los particulares ... las limosnas que deseen ... hagan a través de las instituciones ... adecuadas y nunca directamente ...

Por último, pedir a la Asociación de Propietarios de Casas de Vitoria ... adopten resoluciones tendentes a ... convertir sus viviendas en cobijo ... tuitas de un vasto hospicio ...